

Historia eta Zuzenbidea A. Pérez Goyena-ren “Ensayo de Bibliografía Navarra”-ko grabatuetan

SALCEDO IZU, Joaquín

Zuzenbidearen Historian katedraduna
Nafarroako Unibertsitate Pribatuko irakaslea
31080 Iruña

BIBLID [1137-1951 (1997), 2; 109-112]


AUTOREA ETA BERE OBRA

Gaur egun ikerketa historiko eta juridikoari buruz daukagun materiale bibliografiko aberatsak, aurrekari aparta izan zuen testu inprimatuetan, eta horien artean, arlo araugileak biltzen zituzten idazki juridikoetan bereziki (Gorteetako koadernoak, Bildumak eta kontraforuak, besteak beste). Inprimatu hauek, ezagutza iturri modura, berebiziko ekarpena egiten dute Nafarroako Historia eta Zuzenbidea ezagutu ahal izateko.

Aita Pérez Goyena-ri zor diogu egindako ahalegin xehe eta bikain hori, *Ensayo de Bibliografía Navarra desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910* obra dela eta.

Antonio Pérez Goyena, Huarte-Iruñan jaio zen 1863ko urtarrilaren 17an, eta Nafarroako hiriburuan hil 1962ko urriaren 24an. Mende bateko bitzitza oparoa, non poligrafo eta jesuita nafar hau, Loiola eta Oñan ikasten aritu ostean (azken honetan apaiz ordenatuz), Historia, Filosofia eta Matematiketako irakasle izan zen Valladolideko San José Eskolan; Teologia dogmatiko, Eskolastika eta Hebraierakoa Oñako Máximo Eskolan, Apaizgaitegian eta Salamancako Pontifize Unibertsitatean. Belgikan Exegesi Biblikoaren Historiako irakasle izendatu zuten, eta azkenik, Iruñako Apaizgaitegiko irakasle, 1931tik 1946ra bitartean.

Apaigarria da, era berean, “Razón y Fé” aldizkarian hogeita bat urtez aritu zela idazle gisa lanean, bertan gai anitzei buruzko ikerlanak argitaratu zituelarik; espainiar teologi historiari eta Nafarroari buruzkoak ziren gehientsuenak, hala ere.



1



2



3



4

Hirutan jaso zuen Olave saria, beste hainbeste obregatik (*Contribución de Navarra a la Historia de la Sagrada Escritura* -1944-, *La santidad en Navarra* -1947- eta *El valle de Baztán* -1957-). Iada 1934an César Borgia, obispo de Pamplona argitaratu zuen "Razón y Fé" aldizkarian, 1941ean *La primera biblioteca pública en Pamplona*, eta hurrengo urtean *Episcopologías de la diócesis de Pamplona*. Asko dira bere ikerketa eruditua. Baina orain azzimarratu nahi duguna, Príncipe de Viana-k argitaratutako obra dugu -urte askotan izan zen aldizkariko kolaboratzaile-: *Ensayo de Bibliografía Navarra desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*, zeina 1947 eta 1964 artean argitaratu zen. Bederatzi liburukiz osatua dago, eta hil osteko obra da horietakoren bat.

Ensayo honek, luzera ezberdina duten 8.627 inprimaki biltzen ditu, izan ere, orri askeak nahiz 1489az gozotik inprimatzaile nafarrek argitaraturiko liburuak aurki daitezke.

IRUDIAK ETA GRABATUAK

Pérez Goyenaren obran, nahiz eta bederatzi liburukietan zehar antzeko sistematika jarraitzen den, zenbait desberdintasun soma daitezke edizioak aurrera egin ahala.

Obrak kronologikoki biltzen ditu testuak, euren inprimatze urtearen arabera, eta autorea aipagarria den kasuetan, berari buruzko deskribapen prosopografiko labur bat egiten du.

Lehen liburukietako indizeek aurkibide analitiko bat dute, ez ordea edizioako azken liburukiek. Antzeko zerbait gertatzen da grabatu eta irudiekin ere.

Lehen liburukian hogeita bi grabatu daude, bigarreanean hogeita hamar, hirugarrenean zortzi eta laugarrenean hamahiru. Gainerako liburukietan ez da laminarik agertzen. Beraz, Nafarroan inprimaturiko 73 grabatu edo portaden kopia nahiz testu dira guztira.

Kopiatutako laminek edukia oso ugaria da, baina nagusiki agertzen diren gaiak honokoak ditugu: erlijioso edo kanonikoa (*Manual de la Iglesia de Pamplona*, Azpilcueta-ren *Manual de confesores y penitentes*, *La vida del Beato Gonzaga*, *Vida de Nuestra Señora en verso*, *Ritual Romano seráfico* eta *Disertaciones histórico-canónicas de la Iglesia catedral*, beste askoren artean); literarioa (Nebrija-ren *Aurea Expositio Hymnorum*, *El séptimo libro de Amadís*, Sannazaro-ren *Arcadia*, Rojas-en *La celestina*, edota Cervantes-en *Novelas Ejemplares*); filosofikoa (*Introductio ad libros logicorum Aristotelis* nahiz *Quatuor Tractatus in I Partem S. Thomae*); eta historiko biografikoa (Sandoval-en obrak dira nagusi: *Historia de la vida y hechos de Carlos V*, *Historia de Idacio*, *Obispo* eta *Catálogo de los Obispos de Pamplona*; baita ere *Historia del Real Monasterio de Sixena*, *Idea de Exea*, *compendio Histórico*, eta Beremundo eta Mikel Excelsis santuen bizitzarekin erlazionatuta dauden guztiak).

Gure arreta, ordea, Nafarroako Erreinuko Zuzenbidea edo Historia ezagutzera garamatzaten lamina juridiko eta historikoetan ipiniko dugu. Hala eta guztiz ere, aipatu berriak ditugun gaietako liburuen sintesi modura, lehen liburukiko bi grabatu behatuko ditugu alde zurretik.

BROKAR-EK INPRIMATURIKO BI TESTU

Lehen obra, Iruñako katedraleko Liburutegian dagoen inkunabile bat da, "Arnaldo Guillermo de Brocar maisu agurgarri eta zuhurra Jainkoaren 1496. urtearen ekaineko zortzigarren egunean" inprimatua. Aristotelesen politikarien liburuei buruzko Iruñekin edo idatzi bat da (1), Leonardo Aretino-k egindako itzulpena oinarritzat hartuz 1481ean Castrovol-eko Pedrok egindakoa (*Yncipit commentum seu Scriptum super libros polithicorum secundum translationem novam leonardi aretini factum per fratrem petrum de castrovol ordinis fratrum minorum et sacre theologie magistrum: natione hispanum de regno legionensi: et de quadam villa que dicitur mayorga*).



5

Ez dago oso garbi ale hau independentea den, edota etika eta ekonomiari buruzko liburu aristotelikoaren iruzkinarekin batera liburu bat osatzen ote duen. Brocaren oraintxe aipatuko dugun beste obrarekin ere arazo hori bera ematen da; Iruñako katedraleko Agiritegian dauden *Constitutiones provinciales provinciae cesaraugustane* (2) delakoan alegia. Bi zatitan banaturiko liburu bat osatzen du Iruñako elizbarrutiko konstituzio sinodalekin batera, "impressae per magistrum Arnaldum Guillelmum de Brocar, in regali civitate pampilonensi, anno domini 1501".

Pérez Goyenak berak dioen bezala, ez da batere harritzekoa bi konstituzioak liburu bakar batean argitaratu izana, zeren eta Iruñako elizbarrutia Zaragozako artxielizbarrutiari zegokion 1318az geroztik, eta beraz, Iruñako egoitzan bete beharrekoak ziren zesaraugustanak. Leku eta garai desberdinetan egindako bi xedapen kanoniko dira hortaz, baina Iruñan aplikatzeko batera inprimatu zirenak.

LEGE TESTUAK

Pérez Goyenaren *Ensayo*-n argitaraturiko grabatu guztien artean lauk baino ez dituzte jasotzen nafar Zuzenbidearen iturriak. *Ordenanzas de los zapateros, adobadores y zurradores del Reyno de Navarra* ezik, gainerako hirurak eduki anitzeko bilduma juridikoak dira. Hiru bildumak aztertuko ditugu -1562ko lehen gremio ordenantza horiek alde batera utziz-, lehen biek euren artean eta baita zapatarienekin ere antza handia duten arren.

Kontua da formato bereko Nafarroako ezkutuz daudela apaindurik bai *Las Ordenanzas, leyes de visita, y aranceles, pragmáticas, reparos de agravios y otras provisiones Reales del Reyno de Navarra* (3), *impressas por mandado de su Mag. el Rey don Phelippe nuestro señor, y del Illustrissimo Duque de Alburquerque su Visorrey en su nombre, con acuerdo del Regente, y consejo del dicho Reyno* (1557an argitaraturiko Pedro Pasquier eta Pedro Balanzaren obra), bai *Repertorio de las ordenanzas, leyes de visita, aranceles, pragmáticas, reparos de agravios, y otras provisiones reales* (4), y *leyes del reyno de Navarra, que hasta agora se han impresso: contenidas en el libro. Con las cortes de Tudela; del año de LVIII, y de Sangüessa, del que no están en el libro. Fecho por el licenciado Miguel Ruyz del Consejo de su Mag. en el dicho Reyno. Visto y aprobado por los SS. Regente, y los del Consejo del. Dirigido al muy Illustre señor el señor don Gabriel de la Cueva, Clavero de la orden de Alcántara, Virrey y capitán general del dicho Reyno*, 1561ean argitaratua.




6

Izan ere, Adrián de Anvers-ek inprimatu zituen obra hauek bere Lizarrako inprentan. Ruiz de Otalora-ren Erreperatorioko ezkutuz eta Ordenantza zaharrak bezala ezagutzen direnetao bigarren liburukian agertzen denak, neurri berbera dute. Aipatu dugun zapatarien ordenantzako ezkutua apur bat handiagoa da, eta are gehiago Pasquier-ek 1567an (Balantza hilik zen ordurako) egindako Ordenantza berrietakoa. Ordenantza berri hauen grabatuaren kopia oso ezaguna ez den arren, nire *La imprenta en la Legislación histórica de Navarra* ikerlanean aurki dezakezue (*Historia de la Imprenta hispana*, 685. or.).

Adriano de Amberes-en Lizarrako tailerrean gorteetako koaderno mordo bat inprimatu ziren, bilduma hauez gain. Beste zenbait inprimatzaile ezagunek ere (hala nola Brocar, Eguía, Porralis, Mares edota Labayen) argitaratu zituzten Nafarroako testu araugileak, nahiz eta Erreinuko uestzko lehen inprimatzaile ofiziala Nicolás de Asiáin izan. Bi inprimatzaile ofizial zeuden XVII. mendean, eta Diego de Zabala zen horietako bat. Sendi honetako beste inprimatzaile bat ere, Martín Gregorio, Erreinuko inprimatzaile ofizial izan zen 1667 urteaz geroztik.


Zabalak Iruñan zeukan inprentan argitaratu zen *Fueros del Reyno de Navarra, desde su creación hasta su feliz Unión con el de Castilla* (5), y *Recopilación de las leyes promulgadas desde dicha unión hasta el año de 1685. Recopiladas y reducidas a lo sustancial, y a los títulos a que corresponden, por el licenciado D. Antonio Chavier, Abogado de los reales Consejos y Auditor general de la gente de guerra de dicho Reyno, sus fronteras y comarcas*. Halako izenburu luzearekin argitaratu zen 1686an "Bilduma Berria" deituriko hau, aurreko bildumetako trokeletatik ezberdina zen egurrean grabatutako ezkutu batekin.



7



8



9



10

NAFARROAKO HISTORIA

Arreta berezia eskatzen zuen Nafarroako Erreinuko lehen kronikaria den aita José de Moret -en obrak, Pérez Goyenaren *Ensayo*-n inprimatzeko grabatuak aukeratzeko orduan.

Martín Gregorio de Zabalaren inprenta ofizial bertatik aterako da –Chavierren Bilduma baino bi urte lehenago- *Annales del Reyno de Navarra compuesto por el Padre M. Joseph de Moret de la Compañía de Jesús* (6, 7, 8), *natural de Pamplona, cronista del mismo Reyno. Tomo I*-ko lehen liburukia. Portada xumea eta handikeria tipografikorik gabea bada ere, obrak Gregorio Fosinam-ek marraztutako aurreportada bat du, zentzu alegoriko handia duena. Erreinuko zaindariak -Fermin eta Xabier santuek- Nafarroako ezkutua eusten dute, zeina obraren izenburua agertzen den kartel baten kontra dagoen. Irudiaren gainaldean, gortina batzuk irekitzen ari dira bi aingeru, ezkutua nabarmendu dadin.

Hamalau liburutan dator Nafarroako historia hau. Beranduagoak diren beste kronikari batzuek, Francisco Alesón eta Pablo Miguel Elizondok esaterako, osotu egin zuten honoko obra, eta horien zenbait edizio egin izan dira egunotara arte (9, 10). Horiei buruzkoak dira 1732 eta 1766ko gainerako grabatuak, bertan Juan de la Cruz Pentsionista errealak egindako lamina gailentzen dela.

Ensayo-ren ediziorako hautaturiko grabatuen artean *Anales*-a hain sakonki ikuskatu bazen, Nafarroako Erreinuaren Historiarik enblematikoena delako egin zen; ondorioz, bertan dauden testu juridiko piloek merezi duten arreta lausoatuagoa gelditu da, irudirik jasotzen ez dutelako. Bildumak nabarmendu nahi ziren beharbada, eta hori bai egiten dela hein handi batean, nahiz eta ez dituen dauden guztiak biltzen.

Edonola ere, apaltasun osoz egindako bibliografia baten aurrean gaude, aintzatespenik beroena merezi duena; ez liburuak maite dituztenen aldetik bakarrik, baizik eta baita historialari, jurista eta beste hainbaten aldetik ere.

Itzultzailea: Koro Garmendia

PEREZ GOYENA, Antonio. *Ensayo de una bibliografía navarra desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*. Pamplona, Institución Príncipe de Viana, 1947-1964.

Sig.: 7343 (Koldo Mitxelenako erreserba fondoa)

Grabatuen kokapena:

I.L.: 15, 45, 91, 101 orr.

II.L.: 509, 510, 522 orr.

III.L.: 338 orr.

IV.L.: 259, 261 orr.